

Aitzinamendua, Victor Hugorentzat, aeroskafiaren parte da. Aeroskafia, gaur egun ezagutzen dugunarekin parekatuz oso ezberdin irudikatzen duen baina hutsune intersideralen azterketaren ideian oso profetikoa den espaziontzia da. Beretzat, grabitatea gailentzea da kateetatik askatuko lukeen gizateriaren azken helburua. Ezagutzen ditugun espaziontziak, teknologiaz blai, aeroskafiak suposatzen duen askatasun moral eta espiritualaren ametsak baino gertuago daude lurretik.

“Astiro, hodeirik iritsi ez den hartara iritsia da;  
Jabaltasunaren maila berean dabil hegaz,  
Esferen aitzinean;  
Han daude, misterioa ikusgarri egiten dutela,  
Amildegri baten su bana, jakin-mina  
Argitan ilunagotzen.

Andromeda izarniaka, Orion distiran;  
Handitu egiten da Pleiadeen talde miragarria;  
Siriusek zabal osina;  
Arcturus, urre-txori, ñir-ñir bere habian;  
Scorpion nardagarriak hanparazi egiten du  
Sagitariusen papo urdina.

Aeroskafoak bezkoz beko ikusten ditu,  
Han goian, Aldebaran Zefeak liluratua,  
Perseo, gailurretako ilinti gorria,  
Ardatza garretan duen gurdi polarra,  
Eta, haratago, esne argitasuna, o, zero ilunok,  
Amildegien inurritegia!

Eguzkiak beldurgarriro ageri direnean,  
Gora egiten du; espazio gorrien izuan  
Noratu egiten da, belak zabal;  
Iduri luke, urrundik atzematen den ortzian,  
Ontzi ahaltsu eta eder hau abiatua dela, kantari,  
Izar horietarik batera!”

«Zeru betean», Mendeen legenda, XIV, Hogeigarren mendea, 1859ko argitalpena.

## AI TZI NAMENDUA